

Hizkuntza sexista saihesteko gomendioak

STEE-EILAS



HIZKUNTZA SEXISTA EZ ERABILTZEKO GOMENDIOAK

“Munduko hizkuntza gehienak bezala, gaztelania zein euskara hizkuntza sexistak dira”.

Euskararen zama sexista %5 da, ingelesarena %15, frantsesarena %40 eta gaztelaniarena %80.

JUSTIFIKAZIOA:

Hizkuntza gure pentsaeraren agerpidea da eta hizkuntza funtsezkoa da berdintasunaren baloreak hedatzean. Hizkuntzaren bidez geure barreneko onena eta okerrena hedatzen dugu: nahiak eta iritziak eta, aldi berean, aurreiritziak, irainak, etab.

Horrela, bada, hizkuntzaren bidez, STEE-EILAS Sindikatuak bere lehentasunetako bat zabaldu nahi du: emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egin duen apustua, hain zuzen. Horren ondorioz, berdintasunaren alde gaudela adierazi nahian, berdintasunaren aldeko hizkuntza erabili beharko genuke eta hizkeratik kendu bizirik dirauten estereotipoak, hainbatetan gertatzen baitzaigu, erabat erroturik edukitzeagatik eguneroko hizkera, ohartu gabe erabiltzea.

Euskara sexita al da?. Bai, munduko hizkuntza gehienak bezala. Jende askok pentsatzen du euskarak ez duela zama sexistarik ez duelako genero gramatikalik, gaztelaniak duen moduan, baina beste modu batzuetan agertzen da genero bereizketa. Zuzendari, bezero, abokatu eta antzeko berbek ez dute pertsonaren sexua zehazten, eta beraz, ezin da lengoia era sexistan erabili genero gramatikal bakarra (gizonezkoa) bien genero gida erabiliz. Gaztelaniaz, berriz, maiz egiten da.

Argitalpen honetako gomendio gehienak idazterakoan euskaraz zein erdaraz bi hizkuntzen joera hori saihesten laguntzeko dira.

Hemen agertzen diren gomendio guztiak hainbat iturrietatik hartuta daude, beraz gure helburuak ez dauka zerikusirik originaltasuna lortzearekin, baizik eta hizkuntza ez sexistaren erabilpenarekin. Ikertzaile askori esker (gehienak emakumezkoak) adibide batzuk metatu ditugu ikastetxeetan praktikan jartzeko, pentsatuz nahiz eta lantxo xumea izan, oso lagungarria izan daitezkeela eguneroko lanerako. Gomendioen zerrenda ez da oso luzea, asmoa ez delako ikerketen lanaren ordezkapena egitea, baizik eta sentsibilizatzea eta oinarrizko erabilera ez sexista bultzatzea.

Baina gogorarazi nahi dugu euskaraz hitz egin eta idazterakoan ere erabilera sexistak gerta daitezkeela. Gizona ekintzaren subjektu bakar edo nagusi gisa ager daiteke, eta emakumea, ostera, haren menpeko soil gisa. Batzutan balore, jarrera eta jokaera batzuk sexu bati bakarrik egozten zaizkio.

USTEAK ERDI USTEL:

Hizkera femeninoari buruz hitz egitean dauden usteak hauek dira:

- Etorririk eza (hitz egitean emakumeek ez dute gizonezkoek duten jariotasuna).
- Esaldi amaigabeak (emakumeek hizketa informala darabilte, ahozko komunikazioa dute oinarri).
- Hurrenkera logikorik gabeko hizketa (pentsamendu logiko-matematikoa gizonezkoa denez, gai batetik bestera “saltoka” hitz egiten dute emakumeek).

- Galdera doinuko baiezekoak (auto-estimua baxua berriro ere, besteen onespena behar dute emakumeek bere hizketarekin jarraitzeko).
- Gizasemeek baino gutxiago hitz egitea (bere sexu/generoari “dagokio” hitz egiten egon beharrean entzutea, rol pasibo-hartzailea “beraiena” den heinean).
- Konpetentziazkoak baino kooperaziozko estrategien erabilera (konpetitibitatea baino maskulinoa omen da, arlo publikoa maskulinoa omen den bezala).

GOMENDIOAK:

1.- Hitz elkarketa.

Euskarak sexu biak batera izendatzeko berezko baliabidea du: hitz elkarketa, alegia. Erabil ditzagun, bada, beti ere, eta edozein motatako testuetan, neska-mutilak, aitona-amonak, neba-arrebak, jaun-andreak, gizon-emakumeak...

2.- “Jendarte” hitza.

Gai honetan polemika handiena sortu duena “pertsona” adierazteko hitzen arteko aukerarik egokiena izan da. “Gizon” hitza erabili izan da bai maskulinoa bai generikoa adierazteko euskararen historian, maskulinoa izanik, eta “giza-“ erroa “gizon-“ hitzetik datorrela kontuan hartzen badugu, etimologian “gizaki”k maskulinoa izaten jarraitzen du. Hau ekiditeko “jende”, “pertsona” erabili beharko genituzke “gizaki”ren ordez eta “jendarte” “gizarte”ren ordez.

3.- -sa atzizkia.

Ez dugu erabiliko “jainkosa”, alarguntsa” motako hitzak. Generoa zehaztu nahi badugu, “neska/mutil dantzaria” edo “gizon/emakume dantzaria” esango dugu

4.- Hitanoa.

Ez dugu erabiliko talde misto bati zuzendutako mezuan.

5.- Identifikazioa.

Pertsonak izen, abizen, kargu, lanbidez identifikatu behar dira.

6.- Estereotipoak.

Ez dira lotu behar estereotipoak eta gizarte-paperak, lanbideak, sexuak. Abokatua, arotza, erizaina...andrazkoak zein gizonezkoak izan daitezke.

Ez erabili: itsasgizon/ legegizon eta hauen ordez itsas langile/ legelari.

7.- Hitz iraingarriak

Euskarak baditu erdeinuzko hitz batzuk emakumezkoekin bakarrik erabiltzen direnak: urdanga, txatxala, mamala. Sail horretakoak dira, halaber, mari- aurrizkiak eraturakoak: mari-gizon, mari-zikin, mari-maistra...

ONDORIOA:

JUANENA Agurtzane :**“Kultura sexistatik mintzaira sexista dator eta mintzaira sexistak kulturaren sexismoa iraunarazten du.**

BIBLIOGRAFÍA:

- DEMONTE, Violeta:”Naturaleza y estereotipo: la polémica sobre un lenguaje femenino”. Nuevas perspectivas sobre la mujer.
- EMAKUNDE: “Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago”.
- GARCÍA MESEGUER, Ávaro: “¿Es sexista la lengua española?. Una investigación sobre el género gramatical, papeles de comunicación. Barcelona, edit: Paidós. 1994
- GARCÍA MOUTON, Pilar: “Así hablan las mujeres”.Edit: Esfera.
- LAGARDE, Marcela: “El castellano, una lengua de caballeros”
- LLEDÓ CUNILL, Eulália: “Nombrar a las mujeres, describir la realidad: la plenitud del discurso, curso de formación y acreditación en consultaría para la igualdad de mujeres y hombres. Emakunde
- MORENO, Montserrat: “Como se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela”Edfit: Icaria.
- RUIZ BIKANDI, Uri: “Genus-sexus: Hizkuntza generodunak eta hizkuntza generogabeak.”
- SCHMUKLER,Beatriz: “las madres y la producción cultural en la familia”. La antropología social y los estudios de la mujer. Edit: Humanitas.
- URIA ÁLVAREZ, Amaia: Euskara hizkuntza sexista al da?.
- “La Comunicación como elemento de progreso. Por un lenguaje no sexista”. Departamento de Bienestar Social, Deporte y vivienda del Gobierno de Navarra.
- “Recomendaciones para un uso no sexista del lenguaje”. Servicio de lenguas y Documentos (BPS/LD) Unesco.
- “Nombra en femenino y en masculino” Instituto de la Mujer. Ministerio de Asuntos Sociales
- “Propuestas para evitar el sexismo en el lenguaje” Instituto de la Mujer. Ministerio de Asuntos Sociales

Internten:

- www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_1.pdf
- www.sprachlabor.fu-berlin.de/adieu/recomen/indice.html
- www.nodo50.org/mujeresred/marcela_lagarde-elcastellano.html
- www.aukitu.com
- www.sustatu.com
- www.portugalete.org/General/MANUAL LENGUAJE.htm
- www.ucm.es/info/especulo/numero_17/sexism2.html
- www.el-castellano.com/nosex.html

